

Euskalduntzea Ertzaintzan: oraina eta geroa

Aitor Azkuenaga

Artikuluaren izenburuak berak dioskunez, Ertzaintzaren euskalduntze-prozesua du artikulugileak hizpide: aurrekariak, lehenbiziko ekimenak, Herrizaingo Saileko Euskararen Normalizaziorako Batzordea (ENBA), Ertzaintzako Hizkuntz Normalizaziorako Batzorde Teknikoa, gaurko egoera, geroa... dira besteak beste artikuluan barrena jorratutako gaiak. Eta horiekin batera, euskalduntzean egindako ibilbidearen berri jakineraziko diguten zenbakiei begiratzeko aukera ere izango dugu, hainbat taula eta grafiko lagun.

Aurrekariak

Ertzaintzaren hasiera 1936. urtean kokatu behar dugu, Jose Antonio Agirre Lekubek urte hartan sortu baitzuen *Ertzaña*, Euzko Jaurlaritzaren polizi kidegoa. Erakunde hura *Departamento de Gobernación / Errizaingo Zaingoa* zeritzon sailaren menpe ari zen eta Monzon zen sailburua. Zoritxarrez, Gerra Zibilaren amaieran Francoren diktadurak erakunde demokratiko haiek guztiak deuseztatu zituen.

Euskarak Ertzaiñaren lehen urteetatik bertatik izan zuen lekua erakunde-an. Hain zuzen ere, Lauaxeta olerkariak sortutako erri-zaña neologismoa¹ hautatu zen Euskal Herriko antzinako foru polizien irudira sortutako erakunde berriari izena emateko.

Nolanahi ere, garai hartan euskara gehiago erabiltzen zuten ikurtzat herritarren zerbitzurako benetako tresna gisa baino. “Ertzaña”ren buruzagiek, esan beharrik ez dago, demokraziaren eta euskal herriaren alde ziharduten, eta bai, ondorioz, euskararen alde ere, baina gerra-garaian beste arazo premiazkoago batzuk lehenetsi behar zituzten ezinbestean. (Seguru asko, beste hainbat inguruabarren artean, gerrak berak eta gerrak ekarri zituen zorigaiztoko ondoreek eten zuten polizi kidego hura egituratu eta garatzeko prozesua).

Hori guztia gorabehera, gogoan izan behar dugu “Ertzaña”ren barruan euskaldunak ugari zirela. Dakigunez (erraz da asmatzen) herriaren egoera soziolinguistikoa ere oraingoa baino euskaldunagoa zen, ageriko arrazoiengatik (frankismoak gure hizkuntza eta kultura zapaldu zituelako eta berrogeita hamargarren urteaz gero hiritartze-prozesuak azkar egin zuelako aurrera).

Hizkuntza normalizatzeko neurriak, gaur egun ezagutzen ditugun normalizazio-neurriak alegia, Ertzaintza berriro ezartzearekin batera hasi ziren antolatzen, zalantzati hasieran eta gero eta sendoago denbora igaro ahala.

Ikus dezagun zehatz-mehatz zeintzuk izan ziren Ertzaintzaren Hizkuntz Normalizazioaren bidean egindako lehen urratsak. Horretarako hiru aldi nagusi bereizi behar ditugu:

- 1 Lehenbiziko ekimenak.
- 2 Herrizaingo Saileko Euskararen Normalizaziorako Batzordea (ENBA).
- 3 Ertzaintzako Hizkuntz Normalizaziorako Batzorde Teknikoa.

Lehenbiziko ekimenak

Gerra zibil ondoko lehenengo Eusko Jaurlaritzak, 1980ko apirilaren 29an eratu zenak, Herrizaingo Sailari euskal polizia edo Ertzaintza sortu eta garatzeko eginkizuna ezarri zion. Ildo horretan, 1981. urtearen azken aldera Euskadiko Poliziaren Ikastegia sortu zen Arkauten (Gasteiz), eta 1982ko otsailaren 8an sartu ziren ikastegian Ertzaintzako aurreneko promozioa osatuko zuten ikasleak.

Gogotik lan egin zuten urte haietan. Hala ere, bitartekoak sarritan ez ziren aski izaten eta hutsetik abiatu beharra zegoen. Euskararen irakaskuntzan ere halaxe izan zen. Gogora dezagun, adibidez, HABE sasoi horretan sortu zela eta euskara irakasteko metodologia artean landu gabe zegoela, gaur ez bezala.

Euskara, oztopoak oztopo, lehenengo promoziotik bertatik sartu zen ertzainen prestakuntzan irakasgai moduan. Esan beharra dago 3. promozioan hasi zela irakasten HABEren metodologiari jarraituz. Euskara irakasgaia bi mailatan egituratuta egon zen bederatzigarren promoziora arte, eta, hamargarren promoziotik hasita, beste maila bi gehitu zitzaizkion.

Beste alde batetik, Ikastegian inoiz ez zen aintzat hartu euskaraz nahikoa zekiten ikasle taldeei prestakuntza osoa euskaraz emateko aukera, horretarako proposamenen batzuk egon baziren ere. Horren ordez, ertzaingaien prestakuntzan Euskara irakasgaia sustatzearen bidea aukeratu zen, eta noizean behin erreziklapenerako ikastaro trinkoak egitea, ertzain-talde mugatu batzuei euskaraz jarduteko gaikuntza emateko.

Gauzak horrela, euskara hedatzeko helburuarekin hartu ziren neurriak han-hemenkakoak izan ziren eta sarritan ez ziren iraunkorrak izan, Ertzaintzaren hizkuntz normalizazioaren bide luzean egindako urrats solteak edo jauziak baino. Beraz, ez zuten planik osatzen, ez iraunkortasunik ez helburu zehatzik zutelako. Baieztapen hori egiaztatu ahal izan dadin neurri on azalpen laburra egingo dugu:

- *Inspektoreentzako igoera-ikastaroa (87-88).*– Igoera ikastaro honetako irakasgaien artean euskara sartu zen lehenengo eta azken aldiz, emaitza onak lortu baziren ere. Lehen hiru promozioetako ertzainek parte hartu zuten ikastaroan (euskaraz prestakuntzarik eskasena hartu bide

zutenek). Euskara bi mailatan irakatsi zen, eta ikastaroa gainditu zuten ertzainek 6. euskara maila edo goragokoa lortu zuten.

- *Agintarientzako igoera-ikastaroak (1990).*– Ertzaintzako agintariak eskaturik, euren zereginen ezaugarriari ahalik ondoen egokitutako euskara-ikastaroak antolatu ziren.

Herrizaingo Saileko Euskararen Normalizaziorako Batzordea (ENBA)

Beste sail batzuetan egin zen bezala, 1987an Herrizaingo Sailean euskararen normalizaziorako batzordea sortu zen (ENBA). Erakunde horrek hizkuntzaren normalizazioa helburu zuten neurriak aztertu eta bultzatu behar zituen.

Hasieratik erabaki zen Herrizaingo Sailaren barruan hizkuntzaren egoera aztertzeke bi ikuspegi eta normalizaziorako bi egitarau bereiztu behar zirela, bata Ertzaintzarentzat eta bestea Saileko gainerako langileentzat (funtzionarioak eta lan-itunpekoak). Horrenbestez, ertzainak izan ezik Herrizaingo Saileko langile guztiak sartu ziren Administrazioaren plan orokorrean, eta Ertzaintza (Hezkuntza eta Osakidetzarekin batera) behin-behinean planetik kanpora geratu zen.

Ertzaintzarentzako plan bereziaren zirriborroa aurkeztu zen eta jarduteko ildo zehatzak proposatu ziren, beti ere lehentasunen marko jakin batean, non euskarari buruzko neurriak Ertzaintzaren behin betiko egituraketaren eta hedapenaren menpe baitzeuden.

Azkenik, 1990ean ENBA batzordea desagitea erabaki zen, kontuan izanik Hizkuntz Politikaren alderdi zehatzago bat garatu beharra zegoela (ertzainak ez beste langileen hizkuntz eskakizunak onetsita zeuden eta Ertzaintzari zegozkionak diseinatzea “besterik” ez zen falta). Ingurune horretan, Normalizazioko teknikarien jarduna dinamizatzea proposatu zen, eta horretarako beste batzorde bat eratu zen, sailarteko batzorde teknikoa oraingoan.

Lan-ildo horretan plan zehatz batzuk egin ziren, proiektu orokorragoen fruitu zirenak. Horien artean azpimarragarria da 10. promozioari egin zitzaion hizkuntz plana. Oinarrizko ikastaroan (euskara-ikasketen lau urrats biltzen dituen) hizkuntz prestakuntza areagotu egin nahi zen plan horren bitartez, eta gero igoera-ikastaroetan prestakuntza osatu nahi zen, euskalduntze-zikloa nolabait ixteko. Baina azken zati hori ez zen inoiz gauzatu.

Ertzaintzako Hizkuntz Normalizaziorako Batzorde Teknikoa

ENBA batzordea desegin eta gero *Ertzaintzako Hizkuntz Plangintzarako Batzorde Tekniko/Zuzendaria* eratu zen. Batzorde horretan ordezkariak izan zituzten garai hartako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, HAAEk, HABEk eta Herrizaingo Sailak. Batzordeak bi motatako eginkizunak zituen: zuzendaritza, hau da, inoren lana gainbegiratu eta gidatzea, eta eginkizun teknikoak.

Batzordeak, beste gauza batzuen artean, *Ertzaintzaren hizkuntz normalizaziorako planaren abiaburu nagusiak*. *Behin-behineko plana* izenburuko agiria taxutu eta onetsi zuen. Izan ere, hizkuntz eskakizunen plana abiarazi aurretik, Sailak komenigarritzat jo zuen behin-behineko hiz-

kuntz politikaren abiaburu nagusiak ezartzea. Hala, bada, orduko egoeraren nondik norakoak zehaztu ziren eta horien arabera Ertzaintzan euskararen erabilpena areagotzeko neurriak antolatu ziren. Neurriok, behin-behinekoak izan arren, erakunde barruan indarra izan behar zuten eta Ertzaintzaren hizkuntz normalizazio prozesua ahal zen neurrian bermatu eta arautu behar zuten, harik eta Ertzaintzako Hizkuntz Eskakizunei buruzko Dekretua indarrean jarri arte. Hona hemen behin-behineko planean ezarritako jardunbidea eta abiaburu nagusiak:

a *Euskararen ezagutzaren balorazioa.*– Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak bosgarren xedapen gehigarrian xedatu duen bezala, euskara jakitea merezimenduztat hartu behar da euskara jakitea nahitaezko beharkizuna ez den ikastaroetan, lehiaketetan eta antzeko saioetan.

1990eko apirilaren 9ko AGINDUAREN ondorioz, oposizioaren zikloari borondatezko euskara ariketa erantsi zitzaion. Ariketa hori saio homologatua da, euskaraz mintzatzeko eta idazteko gaitasuna neurtzea du helburu eta gaitasun hori %5 eta %10 bitarteko puntuazioarekin baloratzen da (guztirako puntuaziotik).

b *Oinarrizko Ikastarorako hizkuntz plangintza.*– Herrizaingo Sailaren 1990eko apirilaren 9ko eta 1991ko ekainaren 11ko AGINDUAK direla bide, prestakuntza-zikloaren bigarren aldia gainditu ahal izateko HABEren 4. maila gaindituta izatea frogatu beharra dago, egokitzat jotzen diren saioak eginez (saio horiek homologatzeko beren beregi Batzorde Teknikoa sortu zen eta bertan ordezkariak izan zituzten Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak, Segurtasun Sailburuordearen Kabineteko Hizkuntzaren Normalizazio Arloak, HABEk, HAEEK eta orduko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko Euskararen Gizarte Normalizazioaren Zuzendaritzak). Hori zela eta, Herrizaingo Sailaren Hizkuntz Normalizazioaren arduradunek promozio bakoitzarentzat jarraipen-plan berezi bat egin zuten. Planen emaitzak aldian-aldian aurkezten dira txosten zehatzetan.

c *Hizkuntz plangintza, bai barne-sustapeneko ikastaroetarako eta bai nahikoa luzeak diren erreziklapen-ikastaroetarako ere.*– Eremu honetan, Herrizaingo Sailaren Hizkuntz Normalizazioaren arduradunek aurkeztu zuten proposamena baztertu egin zen. Ertzainen igoera edo espezializazioarako ikastaroetan euskararen presentzia helburu hauek lortzeko moduan normalizatu nahi zuten: ikastaroa gainditzeko ordura arte eskatzen zen baino HABEren maila bat edo bi gehiago gaindituko ziren, eta espezialitate bakoitzaren lexiko berezia sakonean landuko zen.

d *Ertzainak taldeka liberatzen hastea euskara ikasteko.*– Ertzaintzako hizkuntz eskakizun bati lehenengoz esleitu zitzaion manuzkotasun data 98/12/31koa izan zen. Harrezkero ertzainak liberatzen hasi ziren, euskara ikas zezaten. Baina lehenago ere izan ziren ertzainen liberazioak, hiru arrazoi nagusi hauengatik:

– Oinarrizko Ikastarorako Hizkuntz Plangintzari jarraituz ertzainek euskara ikasten lortutako maila alferrikakoa izango zelako jarraipenik ematen ez bazitzaion.

- Hitzarmen guztietan jasorik dagoen sindikatuen eskakizun historikoa betetzeko.
- Komeni zelako plana pausoz pauso abiaraztea, horrelako plan garrantzitsua bat-batean abian jartzen denean sortu ohi diren pilaketak eta arazoak saihesteko.

Horregatik guztiagatik, euskara ikasi nahi zuten ertzainak 1996ko ekainetik aurrera taldeka liberatzeko asmoa hartu zen. Taldeak bi izango ziren eta bakoitzean 300 lagun sartuko ziren. Parte hartzeko beharkizun finkoak ezarri ziren (euskara-maila, ordura arte egindako euskalduntze-prozesua, lantokia, lan-mota, gertutasun poliziala eta abar), eta bai lortu beharreko helburu zehatzak ere (prozesuaren amaieran egiaztatu beharreko maila).

e *Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko neurriei eta gidale-
rroei loturiko beste ekintza solte batzuk.*

Eremu honetan azpimarratzekoak dira ekintza hauek:

- Euskararen erabilpena sustatzeko jarduketak.
- Ertzaintzan euskarazko idazkien erabilera normalizatzeko jarduketak.
- Ertzainen hizkuntza-datutegia diseinatzea eta langileen datutegian hizkuntzari buruz dagoen informazioa eguneratzeko laguntza ematea. Horretarako, jarraipena egiten zitzaien hizkuntz gaitasuna lantzeko ikastaroetan parte hartzen zuten ertzainei eta gero informazioa datutegian sartzen zen.
- Poliziaren terminologiari buruzko azterlanak egitea eta datutegi terminologikoa osatzea.
- Hizkuntz normalizazioaren arloan erakundearteko hitzarmenak egitea.
- Ertzaintzari buruzko azterlan soziolinguistikoak, eta abar.

Gaurko egoera

Ertzaintzan euskara normalizatzeko prozesua arautzen duen 30/98 Dekretua indarrean jarri zenean beste etapa bat hasi zen. Dekretu hark ezarri zituen Ertzaintzako hizkuntz eskakizunak, berauei manuzkotasun datak esleitzeko irizpideak, hizkuntz gaitasuna egiaztatzeko mekanismoak eta eskatutako euskara-mailak lortzeko egin behar diren gaikuntza-ikastaroak.

Alabaina, Ertzaintzaren eginkizunen ezaugarriak eta berezitasunak direla eta, Ertzaintzako hizkuntz eskakizunak berandu jarri dira indarrean, eta horregatik Hizkuntz Eskakizunei buruzko Dekretua aplikatzeko epeak halabeharrez luzatu egin dira. Hain zuzen ere, Poliziari buruzko Legearen hirugarren xedapen iragankorrean bost urteko epea ezarri zen, Legea indarrean jartzen zen egunetik hasita, Ertzaintzaren lanpostuen zerrendak onets zitezten. Ondoren, bosgarren xedapen iragankorrean, hizkuntz eskakizunak lanpostuen zerrenda horiek onetsitakoan aplikatu behar zirela adierazi zen, eta bien bitartean euskara merezimendutzat

hartu behar zela bai sarreretarako deialdietan eta bai lanpostuak betetze-ko deialdietan.

Ertzaintzaren lanpostuen zerrenda 1998an onetsi zen eta arestian aipatu dugun dekretua 1998ko martxoaren 6an argitaratu zen.

Ertzaintzaren lanpostuei hizkuntz eskakizun bi aplikatu behar zaizkie:

- Lehen hizkuntz eskakizuna edo oinarritzakoa (administrazio orokorreko 2. hizkuntz eskakizunaren parekoa).
- Bigarren hizkuntz eskakizuna (zehaztu gabe dago eta aurten garatu behar da).

Prozedurari dagokionez, otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren III. kapituluaren adierazi da zein prozedurari jarraitu behar zaion hizkuntz eskakizunen banaketaren eta manuzkotasunaren gaitetan.

Herrizaingo Sailak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak alde aurretik egiten dituen txostenak ikusirik, hizkuntz eskakizuna eta manuzkotasun data esleitzen dizkie Ertzaintzaren lanpostuei (Ertzaintzaren bigarren hizkuntz eskakizuna diseinatu gabe dagoenez, oraingoz lehenengo baino ez da esleitzen). Herritarrei egiten zaizkien polizi zerbitzuen ezaugarrien arabera ezartzen dira manuzkotasun-datak, gizartearen eskakizunak behar bezala betetzeko.

Ertzaintzan gutxienez zenbat manuzkotasun-data esleitu behar diren zehazteko kalkulua dela-eta, esan behar da manuzkotasun-datatzat jotzen dela lanpostua betetzeko eta lanpostuan aritzeko hizkuntz eskakizuna nahitaez bete behar den lehenengo eguna.

Beste alde batetik, 30/1998 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak dioen bezala, manuzkotasunak urtero ezarri behar dira, hau da, urtero lanpostuen zerrenda aldatu egin behar da manuzko datak sartzeko. Plangintzaren lehen aldian (10 urteko aldia da, bost urteko bi etapatan banatuta) Ertzaintzaren plantilan hizkuntz eskakizuna edukiko duten lanpostuen indizeak ez du izan behar EAEko Administrazio Orokorrek bere plangintzaren bigarren aldian bete behar duen indizea baino txikiagoa. Bestalde, indize hori aplikatzearen emaitza diren manuzko daten erdiek plangintzaren lehen aldiko lehen etapakoak izan behar dute, hots, lehen bost urtekoak (Dekretuaren 7.1. artikulua). Gainera, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu duenak, IV. kapituluko 11. artikuluan xedatu duenez, nahitaez bete beharreko indize hori kalkulatzekoan kontuan hartu behar da EAEko biztanleen euskalduntasunari buruzko informazioa. Informazio hori Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsu edo Estatistikan dago, edo, behar izanez gero, haren baloraziorako taula orokorretan. Honela kalkulatu behar da nahitaez bete beharreko indizea:

$$\text{Euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak} / 2).$$

Plangintzaren aldi bakoitzean indize hori kalkulatzeko, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren azken zentsu edo estatistikan ageri diren datuak hartu behar dira oinarritzat. Hortik ondorioztatzen da 1996ko erroldako datuak

erabili behar izan direla indizea zehazteko. Hala ere, manuzkotasun-datak lehenengoz adjudikatu zirenean, 98/12/31ko adjudikazioan, 1991ko eroldako datuetara jo behar izan zen, ez EUSTATEk ez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zutelako biderik 1996ko eroldako euskarari buruzko datuak ustiatzeko. Gaur egun, berriz, baditugu eskura 1996ko indize ofizialak eta horiexek erabili dira 99/12/31ko adjudikazioa egiteko. Hala, bada, EAeko Administrazio Orokorrarentzat 1996ko eroldaren arabera ezarri den indizea %40,74 da. Horrenbestez, plantilako ertzainak 7.131 direnez gero, gutxienez 2.905 erzainek izan behar dute manuzkotasun-data planaren lehenengo aldi honen amaieran. Lehenengo bost urteen buruan gutxienez 1.453 plazak izan behar dute manuzkotasuna, beraz. Azken batean, eta datu horien arabera, *urtero* Herrizaingo Sailak *gutxienez 291* lanposturi esleitu behar die manuzkotasun-data.

Ertzaintzaren lanpostuei behar denean manuzkotasuna esleitzeko bete behar den prozedura 30/1998 Dekretuaren III. kapituluaren III. artikuluan ezarri da. Hona hemen prozedura horretan aintzat hartu beharreko alderdiak, lehentasunaren araberrako hurrenkeran:

- 1 Polizi zerbitzu publikoaren beharrianak.
- 2 Nahitaez bete beharreko indizeak, alegia, Ertzaintzaren unitate bakoitzaren lurralde-eremuari dagokion indizea.
- 3 Dotazio anitzeko lanpostuak izanez gero, manuzkotasuna nortzuei esleituko zaien erabakitzeke orduan lehentasun-irizpide hauek erabiliko dira:
 - Euskaraz gehien dakitenei.
 - Gazteenei (45 urtetik gorakoak etapa hasieretan planetik baztertu egingo dira, interesatua ados badago).
 - Antzinakoenei.

Manuzkotasun-datak esleitu ondoren, hizkuntz eskakizuna betetzen dutela oraindik egiaztatu gabe duten ertzainei azterketa egingo zaie euren euskara-maila neurtzeko, eta emaitzen araberrako ordu-kreditua esleituko zaie, hau da, hizkuntz eskakizuna betetzen dutela egiaztatzeke prestatu daitezen Sailak eskainiko dizkien eskola-orduen kopurua esleituko zaie. Jarraian txandak eta taldeak antolatuko dira eta ertzainak liberatuz joango dira hizkuntz gaitasuna lantzeke ikastaroetan parte har dezaten. Oraingoz Herrizaingo Sailak lehen hizkuntz eskakizuna betetzeke prestatuntza baino ez du eskaintzen hizkuntz gaitasuna lantzeke ikastaro horietan. Lehenago ikastaro guztiak Arkauteko Ikastegian egiten ziren, baina 1999tik aurrera hainbat tokitan egiten dira: Herrizaingo Sailaren Intxaurrendoko egoitzan, Sondikan eta Arkauteko Ikastegian bertan. Ikastaro trinkoak dira (8:00etatik 14:30ak arte).

Etorkizuna

Gaur egun, hizkuntz normalizaziorako politikek bi arlo lantzen dituzte: alde batetik, corpusaren planifikazioa dago, eta, bestetik, hizkuntzaren estatusaren planifikazioa. Hizkuntzari buruzko edozein politikak bi arlo

horiek jorratu behar ditu. Eta, aurrerago aipatu dugun berezitasuna dela eta, biak ere modu berezian azaltzen zaizkigu Ertzaintzan, zeren, alde batetik, poliziak erabiltzen duen hizkuntzak ñabardura bereziak ditu (Josu Segura, Administrazioa Euskaraz, 9. zenbakia) eta bestetik, Ertzaintzako kolektiboak besteek ez bezalako plangintza eskatzen du. Ertzaintzan, beraz, bi arlo horiek ez dira landuko Administrazioako gainerrako sailetan bezala, bestetara baizik.

Nolanahi ere, Ertzaintzaren euskalduntzea ez dugu hartu behar aparteko egitasmo gisa, Euskal Herriko Administrazioaren hizkuntz normalizaziorako plan zabalago baten atala baita, eta ondorioz, EAEko hizkuntz normalizaziorako prozesu orokorraren barruan kokatu behar dugu.

Corpusaren normalizazioa

Poliziaren hizkuntza bereziaren erabilera normalizatzeko helburuarekin Ertzaintzan hartu diren neurriek ekarritako emaitzen artean azpimarratzekoak dira Josu Seguraren Poliziarako Hiztegia eta polizia-terminologiako datu-base eleaniztuna. Herrizaingo Sailaren Intranet sarean laster jarriko da abian aplikazio bat Saileko erabiltzaile guztiek baliatu ahal izan ditzaten poliziarako hiztegia eta terminologiako datu-basea; aplikazio horren bitartez, euskaraz diharduten ertzainek eta terminologiako adituek elkarri kontsultak eta iradokizunak egiteko bidea izango dute.

Bestalde, terminologia etengabe berrikusi eta eguneratzeko lanaz gainerra, badago itzulpen-zerbitzua poliziaren argitalpenak eta agiriak euskaratzeko, eta idazkiak hizkuntza bietan sortzeko politikari jarraitzen zaio. Ildo horretan, behin Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko plana onesten denean, administrazio lan guztiak euskaraz egiteko zirkuituak eratuko dira horretarako gaitutako langile euskaldunak dituzten administrazio-unitateetan.

Estatusaren normalizazioa

Estatusa normalizatzeko antolatuta diren neurrien artean, lehenengo eta behin Ertzaintzako bigarren hizkuntz eskakizunaren diseinu eta esleipena aipatuko dugu. Horri buruz, Ertzaintzako Hizkuntz Normalizaziorako Prozesua arautu duen otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuak ondokoa dio lehen xedapen iragankorrean:

“Ertzaintzako zeintzuk lanposturi esleitu behar zaien 2. hizkuntz eskakizuna zehaztu, dekretu honen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Ertzaintzaren antolamenduaren eta funtzioen egitura sendotzeko prozesua burututakoan zehaztu behar da, eta plangintzaren lehen aldia amaitu aurretik. Bien bitartean, 1. hizkuntz eskakizuna esleituko zaie funtzio-beharkizunak behin betiko zehazturik ez dituzten lanpostuei. Behin Ertzaintzako lanpostu batzuei bigarren hizkuntz eskakizuna esleitu ondoren, lanpostu horietan ari diren funtzionarioen hizkuntz gaikuntza hasiko da; aldeztu aurretik, eskakizun hori betetzeko emango zaien prestakuntzarako egitarauak eta metodoak zehaztuko dira.”

Hor aipatzen den 4. artikulua dioenez, bigarren hizkuntz eskakizuna esleituko zaien lanpostuetako langileek hizkuntz gaitasun berezia behar dute, lanpostu espezializatuak edo ardura handikoak izango direlako.

Bigarren hizkuntz eskakizunaren esleipena, goian ikusi dugunez, behin Ertzaintza sendotutakoan eta plangintzaren lehen aldia amaitu aurretik egin behar dela ezarri du Dekretuak. Gogora dezagun plangintzaren lehen aldia 10 urtekoa dela eta 1998ko abenduaren 31n hasi zela.

Kontuan izan behar dugu Dekretuak are epe laburragoa ezarri duela hizkuntz normalizaziorako plana aurkezteko; beraz, euskararen erabilera normalizatzeko planari ekin behar litzaioke lehenik, bigarren hizkuntz eskakizunaren diseinua eta esleipena gerorako utzita.

Hala eta guztiz ere, bigarren hizkuntz eskakizunaren diseinuak eta esleipenak berebiziko garrantzia dute Ertzaintzaren hizkuntz normalizaziorako planaren garapenari begira, eta horregatik Herrizaingo Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak 2000. urtean hasi nahi ditu Ertzaintzako langileen goi mailako hizkuntz eskakizun hori ezartzeko lanak.

Beste arlo batean, Zuzendaritza horrek berak proposaturik, 2000. urterako taxutu nahi da Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko plana, eta bai Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari aurkeztu ere. Dagoeneko hasi dira plana prestatzeko lehenbiziko lanak, eta horietan kontuan hartu da urriaren 27ko 21/1988 Ebazpena, EAEko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onetsi duena 1998-2000 aldirako. Izan ere, ebazpen horrek ezarritako markoaren barruan garatu behar dugu Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko proposatuko dugun plana; beti ere, gure erakundearen berezitasunei ere jaramon egin behar diegu.

Ertzaintzan euskara normalizatzeko prozesua arautu duen 30/1998 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoan ezarrita dagoenez, Herrizaingo Sailak onetsi behar du Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko plana, eta aldeztu aurretik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak planari buruzko txostena egin behar du.

Etorkizuneko egitekoen artean horixe lehenetsi behar dugu, plana lehenbailehen onets dadin. Aurretiazko lanak hasi dira eta horien artean Ertzaintzaren hizkuntz egoeraren diagnostikoa nabarmendu behar dugu.

Beste alde batetik, Ertzaintzan erabiltzen diren hizkuntz politikak gero eta eragingarriagoak dira Ertzaintzaren egitura bera sendotuz doan heinean.

Esan beharra dago, gainera, Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko planak jarduteko markoa ekarriko duela, helburu argien eta neurketarako irizpideen arabera ordenaturik, Ertzaintzan euskararen ezaguera eta erabilera araeagotzea helburu duten hizkuntz normalizazioko neurri guztietarako.

Ekintza horien ildotik, aipatu nahi dugu Ertzaintzako hitzarmenean dirulaguntzen sistema antolatu dela lan-ordutegitik kanpo euskaltegira joaten diren langileentzat, eta bai liberazio partzialen egitaraua ere, HABEko 6. mailatik aurrera, euren kontura euskara ikasteko ahalegina egin eta euskara ikasketen bi maila epe jakin batean gainditzen dituzten ertzainentzat, edo alfabetatze-maila gainditzen duten euskaldun zaharrentzat.

Azkenik, hizkuntz prestakuntzarako neurri bereziak jarri nahi dira euren lanpostuen ezaugarri bereziengatik euskara modu arautuan eta ordu finkoetan ikasterik ez duten ertzainei laguntzeko. Hain zuzen ere, teleikas-ketarako ereduak plana taxutu da, HAAEk administrazio orokorrean darabilen sistemaren antzekoa.

Neurri orokor horiez gainera beste neurri zehatzago batzuk ere hartuko dira, beti ere aurrekoekin koordinaturik, eta Ertzaintzan euskara erabiltzeko etorkizuneko planak eskainiko digun esparru orokorraren barruan.

Alderatzeko datuen azalpena

Hizkuntza normalizatzeko bidean Ertzaintza zehatz-mehatz zer egiten ari den hobeto ikus dadin, jarraian datu batzuk emango ditugu, euskararen ezagueraren bilakaera eta gaurko egoera argitzen lagunduko digutenak.

Datuon iturriak Euskadiko Poliziaren Ikastegia eta Giza Baliabideen Zuzendaritza dira.

Euskararen ezagueraren bilakaera Ertzaintzan

Hiru une hauek hartu ditugu kontuan bilakaera neurtzeko:

- * Ertzaingaiantzako oinarritzko ikastaroan sartu zirenean ikasleek zuten euskara-maila.
- * Oinarritzko ikastaroaren amaieran egiaztaturiko maila.
- * Gaurko maila.

Ikasleak ikastegian sartu zirenetik prestakuntza-aldia amaitu zuten arte, faktore hauek izan zuten eragina haien euskara mailaren bilakaeran:

- * Lehenengo bederatzi promozioak: Euskara ikasketen bi urrats egin zituzten (250 bat eskola-ordu) oinarritzko ikastaroko euskara irakasgaiak.
- * 10. promoziotik hasita, ikasleek lehenengo aldiz euskara ikasketen lau urrats egin zituzten prestakuntza-aldian zehar, eta horiek gainditu izana egiaztatu behar izan zuten Ertzaintzako funtzionario bihurtu ahal izateko. Hamargarren promoziaz gero, beraz, E-4 dugu atalase-maila, hau da, ikasle guztiei irakasten zaien eta guztiek gainditu behar duten ezaguer-maila. Euskara erabiltzeko hizkuntz gaitasuna hobetu egingo da promozio horretatik aurrera, eta maizago gertatuko da agenteak eskalategietara joatea (hitzarmenean ezarritako dirulaguntza dutelarik matrikula egiteko).

Azkenik, Ertzaintza eratzeke aldiaren amaieratik gaur arte euskararen ezagueraren bilakaeran eragina izan duten faktoreak honako hauek dira:

- 1 Inspektoreentzako ikastaroa. (Euskara irakasgai izan den igoera-ikastaro bakarra).
- 2 Ertzaintzaren hitzarmenean sartu ziren euskara-ikastaroak. (Txanda bi egin ziren 1989 eta 1990. urteetan).
- 3 Agintarientzako euskara-ikastaroa.

- 4 Lan-orduetatik kanpo euskaltegira joatea, matrikula ordaintzeko diru-laguntzarekin. (Ertzaintzaren hitzarmenaren 43. artikulua).
- 5 Euskara ikasteko banakako liberazioak, matrikula interesatuak berak ordaintzen duela. (Ertzaintzaren hitzarmenaren 43. artikulua).
- 6 Ertzaintzako hizkuntz eskakizuna betetzeko liberazioak.

Euskararen *Plusak* deritzen sariak ez ditugu sartu neurri eragile horien multzoan, gure ustez ez direlako euskara ikasteko pizgarriak, hizkuntzaren *status quo*-ari eusteko bitartekoak baizik. Era berean, ohartarazi beharra dago lehenengo 8 promozioetakoek soilik izan dituztela plus horiek, gero plana bertan behera utzi baitzen, eta plusa hartzeko aukera zuten ertzain batzuek uko egin ziotela, arrazoi bereziengatik.

Gaurko maila esaten dugunean goreneko euskara mailaz ari gara, Ikastegian eta euskaltegi homologatueta egindako egiaztapenak kontuan harturik. Halaber, Plusa baino beste daturik eduki ez dugun kasuetan, euskararen 1. *Plusa* dutenak E-6 multzoan sartu ditugu eta euskararen 2. *Plusa* dutenak, berriz, E-8 multzoan.


BILAKAERA

EUSKARA MAILA	HASIERAKOA	%	AMAIERAKOA	%	GAURKOA	%
Euskalduntze-0	4374	%60,5	1082	%15,0	973	%13,5
Euskalduntze-1	638	%8,8	467	%6,5	411	%5,7
E-2	377	%5,2	1906	%26,4	1350	%18,7
E-3	223	%3,1	947	%13,1	148	%2,0
E-4	147	%2,0	783	%10,8	1456	%20,2
E-5	81	%1,1	310	%4,3	336	%4,7
ALF-0	1043	%14,4	73	%1,0	0	%0,0
E-6	64	%0,9	227	%3,1	314	%4,3
ALF-1	26	%0,4	713	%9,9	328	%4,5
E-7	9	%0,1	114	%1,6	131	%1,8
E-8	71	%1,0	82	%1,1	730	%10,1
ALF-2	2	%0,0	282	%3,9	715	%9,9
E-9	35	%0,5	10	%0,1	28	%0,4
E-10	58	%0,8	32	%0,4	43	%0,6
E-11	0	%0,0	41	%0,6	43	%0,6
E-12	5	%0,1	64	%0,9	75	%1,0
EGA	71	%1,0	91	%1,3	143	%2,0
1. H.E. EGIAZTATURIK					1513	%20,9

EUSKARA EZAGUERAREN BILAKAERA

4374

IKASLEAK




HASIERAKOA: Euskararen ezaguera ikastegian sartzerakoan

AMAIERAKO: Euskararen ezaguera ikastegiko aldiaren amaieran


GAURKO: Euskararen ezaguera gaur egun

GAURKO EGOERA

IKASLEAK




GAURKO EGOERA




OHARRA:

ATALASE MAILA: E-0, E-1, E-2, E-3
 OINARRIZKO MAILA: E-4, E-5
 ERDI MAILA: E-6, ALF-1, E-7
 GOI MAILA: E-8, ALF-2, E-9, E-10, E-11, E-12, EGA

DERRIGORTASUN-DATEN ESLEIPENA




GAURKO EUSKARA GAITASUNA



OHARRA:

ATALASE MAILA: E-0, E-1, E-2, E-3
 OINARRIZKO MAILA: E-4, E-5
 ERDI MAILA: E-6, ALF-1, E-7
 GOI MAILA: E-8, ALF-2, E-9, E-10, E-11, E-12, EGA

DERRIGORTASUN DATAK EZARRIAK DITUZTEN
LANPOSTUETAN EGIAZTATUKO H. ESKAKIZUNAK



%6,88

31/12/98

Oharra

1. Euskaltzaindiak, Berako adierazpenean (1980-VII-31) "Polizia ezberdinen izenak direla eta Euskaltzaindiaren adierazpena" izenburupean, irizpide terminologiko hau ezarri zuen polizi zerbitzuen artean nahasketarik sortu ez zedin: *Polizia*: polizia, oro har; *Ertzain*: euskal polizia autonomoko kidea; *Ertzaintza/Ertzaingo* (lehenengoak hartu du indarra, bigarrena baztertu egin da): polizia autonomoaren kidegoa; *Udaltzain*: udal poliziako agentea; *Udaltzaingo*: udal poliziaren kidegoa, eta abar.

Bibliografia

- Segura, J.** 1995. Alfabetatze teknikoa.
Administrazioa Euskaraz 9: 4.